

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO UDALA

#### **Lizitazioa, Añanan jatetxe loturako zerbitzu eraikina egiteko instalazioetako eraikuntza obrak kontratatzeko**

Onartu delarik administrazio klausula berezien agiria Añanan jatetxe loturako zerbitzu eraikina egiteko instalazioetako eraikuntza obrak kontratatzeko, jendaurrean jartzen da zortzi egun baliodunetz Añanako Udalaren erregistro orokorrean (Miguel Diaz de Tuesta, 1, Gesaltza Añana – Araba), interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta, nahi izanez gero, dagozkion erreklamazioak aurkezteko.

Aldi berean, eta bat etorritz udalbatzaren 2016ko urriaren 28ko osoko bilkuran hartutako erabakiarekin, zeinaren bidez onartu baitzen kontratazio espedientea, lizitaziorako deia egiten da kontratu hori esleitzeko, datu hauekin, nahiz eta lizitazioa atzeratu egingo den erreklamazioak aurkeztu eta beharrezko gertatzen bada.

1. Erakunde esleitzaila.

Erakundea: Añanako Udala.

– Helbidea: Miguel Diaz de Tuesta, 1. Gesaltza Añana. 01426. Araba.

– Telefonoa: 945-351067.

– Faxa: 945-159795.

2. Kontratuaren xedea.

a) Kontratu mota: obrak.

b) Azalpena: Añanan jatetxe loturako zerbitzu eraikina egiteko instalazioetako eraikuntza obrak gauzatzea

c) Gauzatzeko lekua: Añanako Errege kaleko 1.ean dauden udal instalazioetan.

d) Gauzatzeko epea: gehienez 8 hilabete.

3. Izapidetzea eta prozedura.

a) Izapidetzea: arrunta

b) Prozedura: irekia, hainbat esleipen irizpiderekin.

c) Esleipen irizpideak:

A. Automatikoki kuantifika ezin daitezkeen irizpideak: gehienez 40 puntu.

1. irizpidea. Memoria: gehienez 20 puntu.

2. irizpidea. Giza baliabideak, laguntzakoak eta azpikontratuak: gehienez 12 puntu.

3. irizpidea. Eskaintako hobekuntzak, kostu gehigarririk gabe: gehienez 8 puntu.

B. Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak: gehienez 60 puntu.

1. irizpidea. Eskaintza ekonomikoa: gehienez 51 puntu.

2. irizpidea. Gauzatzeko epea: gehienez 5 puntu.

3. irizpidea. Hobekuntza obraren bermearen gainean: gehienez 4 puntu.

Irizpideen ebaluazioa agirian dago zehaztuta.

4. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: 346.875,45 euro gehi BEZa (72.843,84 euro); Zenbatekoa, guztira: 419.719,29 euro.

5. Bermeak: ez da eskatzen behin-behineko bermerik. Behin betiko bermea esleipen zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte) izango da.

6. Enpresaburuaren kaudimena:

Sailkapena ez da beharrezkoa, zenbatekoa aintzat hartuta. Hala ere, enpresaburuak bere kaudimena egiazta dezake, bai sailkapen hau edukita:

E taldea, 1 azpitaldea, e kategoría.

E taldea, 4 azpitaldea, e kategoría.

E taldea, 5 azpitaldea, e kategoría.

E taldea, 7 azpitaldea, e kategoría.

G taldea; 3 azpitaldea, d kategoría.

G taldea; 6 azpitaldea, f kategoría.

K taldea, 6 azpitaldea, b kategoría.

Eta bai kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionaleko irizpideak betetzen dituela egiaztatuta, bide hauetatik:

6.1. Ekonomia eta finantza kaudimena:

– Lizitatuaren urteko negozio bolumena, bukatutako azken hiru urteetatik negozio bolumen handiena izan duen urtekoa, kontratuaren balio zenbatetsia bider bat eta erdi izan beharko da gutxienez, haren iraupena ez bada urtebetetik gorakoa.

Onartutako eta merkataritza erregistroan gordailatutako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, enpresaburuaren erregistro horretan inskribatuta badago; bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailatutako bidez. Merkataritza erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuak urteko negozio bolumena egiaztatuko dute merkataritza erregistroak legeztatutako inbentario liburuen eta urteko kontuen bitartez.

6.2. Gaitasun teknikoa edo profesionala:

– Esperientzia kontratuaren xedearen era edo izaera bereko lanak egiten, zeina azken hamar urteetan egindako obraren/lanen zerrendaren bitartez egiaztatuko baita, haien zenbatekoa, data eta hartzaile publiko edo pribatua adierazita, eta ondo gauzatu izanaren ziurtagiriek, gauzatze handieneko urteko zenbateko metatua izan behar delarik, gutxienez, kontratuaren balio zenbatetsiaren ehuneko 70, edo, urteko batez bestekoa kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa bada, horren ehuneko 70.

7. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

a) Bulegoa: Añanako Udalaren bulegoak, 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Proiektuaren CD euskarriaren eta administrazio klausula berezien agiriaren kopia bana Sistemas Arco enpresan eskuratu ahal izango dira (San Antonio kalea 16, Gasteiz).

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.

8. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea

a) Aurkezteko modua: paperean.

b) Aurkezteko epea: 26 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

c) Aurkezteko lekua:

– Bulegoa: Añanako udaletxea; 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

– Helbidea: Miguel Díaz de Tuesta plaza, 1; 01426 Gesaltza Añana

Edo bestela urriaren 2ko 39/1992 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako lekuetan.

d) Postaz bidaltzea: Herri administrazioen kontratuen Legearen Araudi Orokorrak 80.4 artikuluan ezarritako baldintzak beteta. Postaz bidali izanaren iragarkia 945-159795 fax zenbakira bidali behar da.

e) Aurkeztu beharreko eskaintza eredu eta agiriak: klausula administratiboen agirian daudenak.

9. Eskaintzak irekitzea: A, C eta B gutun azalak dagokien ekitaldi publikoan irekiko dira Añanako udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Irekitzea eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hirugarren egun baliodunean egingo da. Azken eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte atzeratuko da.

Gesaltza Añana, 2016ko urriaren 28a

*Alkatea*

*JUAN CARLOS MEDINA MARTÍNEZ*